

Hiriko etxebizitza

Hiriek garrantzia handia zuten erromatarren munduan. Hiria **plano idealak** guztiz erregularra izan behar zuen; baina, hiriek askotan alde aurrerikoz ezarritako egitura izan ohi zuten, plano forma askotarikoa gertatzen zen. Hiria bi kale nagusien inguruan antolatuta zuten (*cardo* eta *decumanus*). Bi kaleok gurutzatzen ziren gunean foroa zegoen, hots, esker publikoa, politika-, merkataritza- eta erlijio-gunea.

Erromatarren munduan hiriek zuten garrantzia antzemateko, oroit zaitez Erromatar Inperioa bera hirien baten garapenetik sortua zela. Badakizu zein? Bai, noski: **Erroma** duzu hiri hori.

Hona Euskal Herriko erromatar hirien nagusiak: Baiona (Lapurdum), Iruñea (Pompaelo) eta Oka-Iruña (Veleia). Ez ziren Erromaren mailakoak, baina ez ziren hutsaren hurrengo ere.

Plano idealak: Hiria sortzerakoan, hiriguneak hartu behar zuen perimetroa (*pomerium*) markatzea zen lehen egitekoa. Izaera erlijiosoa zuen ekintza honek eta apaiz batek egin ohi zuen, goldea behi zuri batek eta zezen batek zeramatela. Ildo baten bidez markatzen zen hiria trazatua; goldea lau puntutan besterik ez zen altxatzen, kale nagusiak egin beharreko lekuan alegia. Barnea kale nagusien inguruan antolatzen zen, laukizuzeneko etxaditan, eta erdigunean foroa zegoen (eraikin publikoak bertan zirela: tenpluak, teatroa, basilika...).

Erroma: Hiri idealaren planoak guztiz erregularra izan behar bazuen ere, Erroma ez zen sekula halakoa izan. Tradizioaren arabera, zazpi muinoren gainean sortua izanik, topografiari egokitu beharra izan zuen. Augustoren garaian, milioi bat inguru biztanle zituen. Etxeak askotarikoak ziren: *domus* edo hiriko etxe dotoreenetako *insulae* edo solairuko etxe kaskarretaraino.

Hemen *domus* baten planoak ikus dezakezu, hau da, hiriko etxe noble baten planoak. Jakina, hiriko biztanlerik gehienak askoz eraikin palagoetan bizi ziren; *insulae* deituriko horiek hainbat solairuko etxeak ziren. Iruña/Veleian, erromatarren eraikuntza horiek II. Mendeko Arokoak ordezkatu zituzten, Tiberio enperadorearen garaiaz geroztik. Batzuetan, lehengo eraikinen materialak erabili zituzten berriro, etxebizitza eta tailer xumeak eraikitzeko.

Hemen ikusten duzun *domus* hau *cardo* edo kale nagusiaren paraleloa zen, beste kale batean zegoen eta 900 metro koadro baino gehiago hartzen zituen. Bertan, sukalde, komun, jangela eta lorategiaren kokaguneak oraino aurkitzeko daude.

Saka ezazu aurkitu diren planoko geletan, informazio gehiago jasotzeko.



- 1.-** Produktuak pilatzeko erabiltzen zuten gela hau.
- 2.-** *Tablinium* edo gela nagusia. Bertan bisitak hartzen zituen etxeke jaunak.
- 3.-** Logelak edo *cubicula* patioaren alboetan ageri ziren. Gelatxo batek eta bi gune txikik -oherako eta jantzigelarako-osatu ohi zuten logela.
- 4.-** Erromatarren garaiko *domus* horiek patio baten inguruan eraiki ohi zituzten. Hala, banaketa eginkizuna zen patioarena, baita argi-emailearena ere. Patioko zorupean uharka handi bat zegoen euri-ura biltzeko; uharka hori egiteko, bi metro eta erdiko sakon indusi behar izan zuten, harri euskarria baino beherago. Patioko zorua mosaiko zuri-beltzez apaindurik zegoen.
- 5.-** Harlauzaz estaliriko isurbidea.
- 6.-** *Tabernae* edo ate inguruko gune hauek dendak ziren. Ate tolesgarriak zituzten barnealdea ikusi ahal izateko. Lurzorua hormigoizkoa zen (*opus caementitium*).

7.- Atea edo *fauces* bi orrikoa zen, zurez egina, burdinazko erro eta errefortzuak zituena. Zurezko eskailera apal baten bitartez, isurbidea zeharkatu eta patiora iristen zen.

8.- Hasieran, gune hau *tabernae* horietako bat zen, denda bat, baina, K.o. V. mendearen erdialdean, zabortege gisa erabiltzen hasi ziren. Hartarako, ia bi metro sakondu zuten, lurpeko harri euskarriraino. Bertan, hiri-zaborra pilatzen zuten: obra-hondakinak (a dreiluak, iltzeak...), janari-hondarrak (abere-hezurak, ostra-maskor ugari...), baxera-puskak eta lanabes zein arma zaharkituak. Horrek guztiak informazio handia eman digu Iruña/Veleia hiriaren kultura materialaz eta janariez.